

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko abuztuaren 25a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Lizarra** • 'Zentauroak sortzen' ikuskizunean Lucy Rees psikologoak zaldien hezte naturala erakutsiko du  
**Georgina Howard** • «Kultur trukaketaren bidez ikasleen ikuspuntuak zabaltzen dira»



## Pilotaren geroa jokoan

Nafarroako Pilota Federazioaren biltzarrerako hauteskunde prozesua bertan behera gelditu da berriki, lau pilotazalek egin salaketengatik. Horren kariatara, Nafarroako pilota klub xumeek matxinada ttikia abiarazi dute. Izan ere, Federazioaren biltzarreko konpromisarioen kopurua banatzeko moduak Federazioa hiruzpalau talde handien esku uzten du, eta beste guztiak bazter uzten ditu. Botere banaketa orekatuaren aldeko apustua egin dute talde ttikiek eta, laster, hauteskunde araudia aldatzeko proposamena egingen diote talde handien menpe dagoen Federazioari.



Lizarra ●

# ‘Zentauroak sortzen’

Zaldiaren eta gizakiaren arteko komunikazioa ardatz duen ikuskizun berezia

**Gaur, bihar eta etzi, Lizarran Zentauroak sortzen ikuskizuna izanen da. Bertan Lucy Reesek, zaldi hezte naturala egiten duen psikologoak, dantzari, mimo, musikari eta akrobaten laguntza izanen du, betiere zaldiaren eta gizakiaren artean komunikazio magikoa lortzeko xedearekin.**



Zentauroak sortzen ikuskizunean Lucy Rees gizakia eta zaldiaren arteko komunikazioa sortzen saiatzen da. ● KRISTINA BERASAIN

«**N**EOTILIKOAN GIZONAREN eta zaldiaren arteko harremana magikoa zen, bien arimak elkarrengandik gertu zeuden. Historiak aurrera egin ahala zaldiak funtzio berezia izan du gizakia-arentzat, eta horren menpe zenbait lan egiteko erabili izan da. Gaur egun, industrializazioarekin batera, zaldiak bertzelako lekua hartu du: aisialdirako bihurtu da». Lucy Rees psikologo, idazle eta zaldi-hezlearen hitzak dira horiek. Uda honetan gurea etorri da, eta Lizarratik bortz kilometrora dagoen Alto de Muru klub hipikoan ematen ditu gau eta egunak, bere zaldiarekin batera. Galesen jaioa, Lucy Reesek

txikia zelarik ikusi zituen aurreneko zaldiak eta *poney*-ak. Haiengana sentitzen zuen erakarpina izugarria zen. «Nire etxeko leihotik ikusten nituen, mendi eta zelaietan, askatasuna sentiarazten zidaten, eta txikitandik haiekin komunikatzeko beharra sentitzen nuen», azaldu du. Horregatik, animalien portara aztergai duen zientzia ikasi zuen Londresko unibertsitatean, eta gerora bere lurralde-ira itzuli zen zaldi basatiak aztertzerara. Gaur egun, zaldi hezte naturala egiten du, eta zaldien inguruko hainbat liburu ere idatzi ditu. Bere ustez, zaldiaren eta gizakiaren arteko harremanak

naturala izan behar du, menpekotasunik gabekoa, senaren bidez egin beharrekoa. «Bere arima eta nirea elkarrengandik gertu daude; hala, zaldiak eta biok jolas egiten dugu, nik nire gorputzarekin mugimendu batzuk egiten ditut eta zaldiak mugimendu horien aurrean erantzunak ematen ditu. Horrela, komunikazio berezi bat sortzen da bion artean, eta hori magikoa da. Berarekin bat egiten dut, eta hark nirekin ere bai».

**Gizakiak eta zaldiak bat**

Zentauroak sortzen ikuskizunean hori guztia ikusi ahal izanen da. Zirkulu batean

gizakiak eta zaldiak bat egiten dute, zentauro bat irudikatuz, eta lurraren gainean poesia egiten dute. Ikuskizun berezi hau gaur, bihar eta etzi ikusi ahal izanen da Alto de Muru, iluntzeko zazpiak eta bederatziak bitartean. Lucyrekin batera zenbait musikari, dantzari eta mimo ariko dira, eta horiek ere zaldiarekin jolas egiten dute. Ekarlana izanen da, senaren bidez egindako jolasa, komunikazio sistema ezberdinak erabiliz erantzun desberdin eta tipustapastekoak; dendena bat-batekoa izanen da, berezia eta magikoa.

→ Kristina Berasain

**Gorriti**  
●  
**Gaupasa mundialak**

ASTE BURU HONETAN LARRAUN eta Araitzen ez dira aspertuko; Iribas, Atallu eta Gorriti festagune izanen dira, gaurtik hasita, heldu den igandea arte. Atzo hasi ziren Gorritin Bartolome Deunaren omenez ospatzen dituzten jaiak.

Gorritikoek azken urteetan herriko festetan soinua jo dutela eskertzeko egun berezia prestatu zieten bi musikari horiei. Kaxiano duela 50 urte hasi zen herri honetara etortzen, batean ere huts egin gabe. Garai haietan hamaika pieza jo izan zituen Taula ostatuan, jendeak dantza egin zezan. Gero, Lizartzako itsuak utzi zuten, Axenxio hasi zen eta puxeke biltzen etxez etxe giroa alaitzen ahalegin franko egin zituen, hasiera batean bakarrik eta gero Trakets taldearekin. Orain, talde horrek bere azken urtea duenean, omen handia egin nahi izan zioten gorritiarrek.

Festak hasteko txupina piztu eta gero, ezkiljotzean hasi ziren eta kalejira egin zuten txistulariekin. Festa giroa jarritakoan, Haize Txulon lagunarteko gosaria egin zuten eta ordu bata inguru horretan omen du zituzten bi musikariak. Peñagarikano eta Estitxu Arozena bertsoetan aritu ziren eta plazan herri bazkaria izan zen. Gaur gauean musika ez da faltako. Horretarako Trakets taldekoak prest egonen dira eta, iragarri dutenez, giroa mundiala izango da.

→ Eli Belauntzaran

*Massilia a Caesare capitur*

AITOR TXARTERINA



## (In)Justizia irlarako bidaiak

**T**urismozaleendako hagitz polita omen da komunean ezagutzen dugun leku batean egotea, hara jotzea. Adibidez, Erroman izan eta kuliseoan, orgozki kamoraren laguntzaz —edo bideo digitalaren laguntzaz edo...—, hemengo lagun-egazunei erakusten diete non etzan, eseri, egon diren. Logikaren kontrakoa, halaber, inork ezagutzen ez duen leku baterantz abiatzea. Alferrik omen. Logika unibertsalari jarraiki, bidaiatzea proposatzen diot balizko turista euskaldun alfabetatuari, zeina hauxe irakurtzen ari baita (esker mila, bidena-bar): pausalekua denok dugu gogoan, kontzientean, inkontzientean edo suprakontzientean. Inoiz iragan gara aldamenetik, han-hemenka barreiaturik baitaude. Jende anitz ezagutzeko parada emanen

liguke. Gezurraren gibelaldeari so egiteko aukera paregabearen aitzinean geundeke. Hunkitzen gaituen bidaiak horietariko bat litzateke honakoa. Gizartea nolako den jakiteko gakoak ematen dizkigu. Turismo intelektuala bikote ezinezkoa denez (grinarik gabeko sexua edota malkorik gabeko kipula garbitzea bezala), bidaiatze intelektuala deituko diot proposamen honi. Burokraziarekin loturik dago bidaiak hau. Zenbait paper fotokopiatu, erakutsi, zerbait sinatu ondoren jakinen dugu ibilalditxo baimentzen digutenetz. Di-ruak agintzen du honetan ere, baina askoz hein txikiagoan. Baiezkoa izanez gero, pozez beteriko aurrepegi mugituko dugu karriketatik, helburua gertu den seinale.

Irlak dira, etxe hertsia. Itsaso bertikala hormak dira, harresiak, dorreak. Barnean behar baino jende gehiago bizi da, behar baino askoz jende kopuru handiagoa. Tira, barnera gaitezen: txiroak, hirugarren munduko etorkin pobreak, ijitoak, euskaldunak eta giza-joak dira irla hauetako biztanleak. Ez dago aberatsik, ez eta lapur handirik. Ez duzu atzemanen droga saltzaile erraldoirik, ez dago bankaririk, nahiz eta Bertolt Brechtek aspaldian errana duen delitua ez dagokiola banku lapurrari, banku sortzaileari baizik... politika eta ekonomia dira bi bideak espetxean sartzeko, bertako bizilagun bilaka zaitzaten. Justizia kanpoan bizi da; barnean, berriz, duintasuna eta zaborra, parez pare. Bidaiak on.



# Elbete • Ama Birjina berria

Konpondu ondotik tokia aurkitu diote elizako aldare txiki batean

**Kontua elizako erretaula konpondu beharra zutela ikusi zutenean hasi zen. On Julian Mitxelenak Elbeteko eta Zigako apaizak, hainbat berriztatzailerekin hitz egin zuen lanari ekin aurretik.**



Elbeteko elizan XVI. mendeko estilo plateresko Ama Birjina aurkitu berri dute. ● RAKEL GOÑI

**E**LBETEKO GURUTZE Santuaren elizaren noiz eraiki zen ez dago batere garbi. Antza denez, XVI. mende inguruan eraiki zuten zatirik garrantzitsuenak, baina badaude zenbait idatzi zaharra goa izan daitekeela diotenak. Garai batean erromesentzako geralekua ere bazen, eta, inguruko elizak bezala, indianoek ekarritako aberastasunen zati bat izan zuen. Egun ikus ditzakegun erretaulak Juan Gazteluzar eskultoreak egin zituen, 1590. urtean. Denboraren

poderioz erretaula horiek kolorea galduz joan ziren, eta zenbait tokitan pipiak jota zeuden. Hori dela eta, Julian Mitxelena apaizak herriko biztanleei diruz laguntzeko

eskatu zion lanak egin ahal izateko. Kuriositateak jota, on Julian apaizak Guillen zaharberritzaile iruindarrari eskatu zion argitzeko gelatxo

ilun batean ahaztua zegoen Ama Birjina baten balioa. Berriztatzailak ez zuen duda handirik eduki, eliz osoan aurki zitekeen zaharrena zen, XIV edo XV. mendeakoa, egur landuan egindakoa eta ondotik koloreztatua. Estilo platereskokoa da, eta konpontzeak 150.000 pezeta balio izan du.

On Julianek dioen bezala, «inoiz ez digute erakutsi ditugun altxorrak baloratzen, eta elizak izugarritzko artisau lanak ditu».

Ama Birjina berriak ez dauka oraindik izenik, baina Elbeteko apaizak «Jesukristo Gure Jaunaren Ama» deitzen dio. Hala ere, Elbeteko apaizak badauka kezka bat. Duela gutxi Santa Barbara basilizan ezkila lapurtu zuten. Berez ez zeukan balio handirik, baseliza 1929koa baita, baina on Julian beldur da ez ote dioten elizan ere lapurtuko. Momentuz, barrideek eskaini diote ezkila berria, baina berak «ez dut ikusi nahi ezkila berririk, hori ere lapurtuko baitute» dio.

→ Rakel Goñi



Xabier Larraburu

## Loa

Hurrengo esaldi hau ikastolan ikasi nituen gauzen artean ikasgairik zehatzena, benetakoena, da: «Nire katua Pitxitxi lo eta lo dago beti». Hala da. Gainontzeko gauzak duda-muda egitekoak izango dira, baina esalditxo hori egunero-egunero nire katua Xaxa-rekin baieztatzen dut. Eta hemen dator misterioa. Zeren zientzialariek loa zertarako den, zehazki, ez dakite. Zientzialariek ez dakite Xaxa egun osoan zertan aritzen den. Loa zer den azaltzeko, hori bai, hipotesiak eta teoriak eraikitzen saiatzen dira eta horretarako eskura dituzten datuak baliatzen dituzte, eta datu horiek lotan gauden bitartean burmuinaren aktibitatea izugarri handia dela baieztatzen dute. Batzuek teoria bitxi bat darabilte. Esaten dute lotan gaudela gure burmuinak egunero zehar jaso duen informazioa sailkatzen ibiltzen dela: hau garrantzitsua da, hau ez. Hau «bikotearen» karpetan jarriko dugu eta beste hau «lanaren» karpetan. Eta abar. Burmuinak nonbait orduantxe ezabatzen ditu ezabatzeokoak: Datu honek ez du bestelako garrantzirik. Borratu. Kontuaren izugarria ongi irudikatzen du behar duzue zenbat eta zenbat datu, oroimen, ditugun buru barruan, eta zenbat eta zenbat gauzari lotuak. Pentsatu behar duzue, loaren lan nekosoan ongi atzemateko, zuek umeak zinetela ikusi zenuten behi hura gauero-gauero «umearenak» karpetatik atera eta berriz ere sartu egin duela loak, bere garrantziaz oharturik, gauero, urtetan, gauero. Eta horrela gainerako guztiak. Orain, nire galdera da: zeintzuk dira Xaxa-ren lau datu horiek? Zeintzuk, loaldi bakoitzaren ezabaketak saihesten dituenak? Kristoren garrantzia izan beharko dute! Pentsatu behar duzue egun osoa irauten duten loaldietatik bizirik atera direla! Egunero behin ez, baizik eta modu etengabeaz ezabatzea saihestea lortzen ari direla. Zeintzuk izan daitezke, beraz? Funtsezko lau benetako egia, seguru nago. Begira, oraintxe iratzartzen ari da eta aharrasit egiten du oraindik ere erdi lo. Euli bat ikusi du leihoan eta badoa hura harrapatzen. Barruan bere lau egiek segitzen dute, azken ezabaketa hau ere saihesturik. ●

# Pirinioak • 'Mendixut' sortu dute

Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko informazioa bilduko du hilabetekariak

**Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari bailaretako, eta Nabaskoze, Orreaga, Auritz eta Aurizberri herrietako informazioa jasoko duen aldizkaria sortu da. Mendixut izena du, eta hilero izanen da karrikan.**

**M**AITE MADOZ ETA RITA Labiano otsagiarrek denbora dezente eman dute aldizkari berria prestatzen. Mendixut izena Bernardo Estornesen hiztegitik hartu zuten. Mendi aldapatsua erran nahi du. «Inguru honetan guzian erabiltzen da hitz hori, eta inguruaren nolokotasuna biltzen du», erran du Maite Madozek.

«Ikusten genuen bailara hauen inguruan informazio falta handia zegoela», azaldu du Madozek. «Bertakoek ere ez dugu jakiten ondoko herrian zer gertatzen den. Biz-

tanle guti gara, bai, baina ez gara Nafarroako prentsan agertzen. Hutsune hori ikusirik, beharrezkoa ikusi genuen holako zerbitzu bat eskaintzea».

Mendixut aldizkariaren bidez Pirinio aldeko bailara horiek guziak bizirik daudela aldarrikatu nahi dute. «Guti gara, baina bagara», dio Madozek. «Hemen ere gertatzen dira gauzak, eta ez soilik Camille hartza jaisten denean, edo Sanz datorrenean bilera batera edo bestera».

Mendixut-en 0 zenbakia hirlaren 1 In aurkeztu zuten, eta



Pirinioetako informazioa biltzen du Mendixut aldizkariak, eta 0 zenbakia kalean da jada. ● EGUNKARIA

irailaren bigarren asterako espero dute 1 zenbakia ateratzea. 0 zenbakiko 3.000 ale atera eta dohainik banatu dituzte etxe guzietan. Hurrengo zenbakian 1.500 ale aterako dituzte, 450 pezetaren

truke saltzeko. Madozek dioenez, 0 zenbakiak, harrera ona izan du. «Izan ere, jende-ari gustatzen zaio bere herriko informazioa irakurtzea. Akatsak izan ditugu, baina zuzenduko ditugu».

Madoz eta Labiano dira aldizkari buruak, eta kolaboratzaile bila dabilta. «Hasieran zailagoa zen», esplikatu du Madozek. «Baina orain, 0 zenbakia kalean dugula, errazagoa izanen da».

Aldizkariak 32 orrialde ditu, eta gaztelaniaz eta euskaraz emanen du informazioa, lehengoa nagusi dela. «Inguruko errealitate soziolinguistikoa kontuan izan genuen, eta euskara proportzio horren arabera sartu dugu».

Aldizkaria sendotzeko harpidetzak egin nahi dituzte. 5.000 pezeta kostako da urteko harpidetza.

→ Asier Azpilikueta







Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Nikasio Landa iruindarra

Nikasio Landa iruindarra itzal handiko mediku militarra izan zen, medikuntzaren inguruko lan ugariaren egilea eta Gurutze Gorriaren lehenengoetako bultzatzailea, baina baita Euskara Elkargoko kide eta lan historikoen egilea ere.



Nikasio Landa Alvarez-Carballo 1831ko urriaren 11n jaio zen Iruñean. Aita Rufino Landa Arbizu zuen (1801-1862), Iruñean jaio eta jardun zuen mediku fina bera ere. Iruñean bertan batxilergoa ahituta, Madrileran egin zuen medikuntza ikastera, doktoretza 1855erako erdietsi zuen. Bere lehenbiziko lana Iruñean zegoen Extremadura Erregimentuaren Lehenengo Batailoiarentzako egokitu zitzaion, eta bizitza militarrekin gustatuta edo, Armadan mediku moduan sartzea erabaki zuen, oposizio bitartez lortu zuena. Aldi berean, eta interino moduan, Iruñeko Institutuko Historia Naturaleko katedra kudeatu zuen denbora labur batez. Armadak deituta, Zaragozako erregimentuarekin joan zen Madrileran 1858an, handik Afrikako gerratera abiatzeko 1860ra arte. Hiru urte geroago, berriz, Tenerifera bidali zuten sukar horiko izurritea zelata eta eriak laguntzeko aginduarekin. Oraino ere azken karlistadan egokitu zitzaion soldadu kolpatuendako lan egitea (1872-1876). Azkenik, eta jada Iruñean ongi finkaturik, Nafarroako Osasun Militarreko aztertzaileorde ibili zitzaigun jubilatuta arte. Erretiroa hartzeko unean koronel mailakoa genuen Landa medikua, Nikasio Landa 1891ko apirilaren 11n zendu zen Iruñeko bere etxean.

Medikuntzaren inguruan lan ugariaren egilea izan zen Nikasio Landa kontsultatik kanpo. Esan daiteke berak eginiko ahaleginei esker sartu zela Gurutze Gorria penintsulan. Alde batetik, Gurutze Gorria sortzea erabaki zuen Genevako Munduko Batzarrean izan zen Landa 1863an. Ho-

rreren ostean Vienako Munduko Batzarrean egon zen 1874an, Parisko Munduko Batzar Mediko-Militarrean 1878an eta baita Londreskoan ere 1881ean.

Osasuna izkiriagai duen hainbat libururen egilea ere bagenuen Landa iruindarra. Bere doktorego tesiak gai filosofikokoa zirudien medikuntzako izateko: *Averiguar la influencia favorable o perniciosa que la civilización haya ejercido sobre la salud pública*. Bizi izandakoen gainean, aldiz, lan interesgarriak bezain zehatzak ondu zituen: *Memoria sobre la alimentación del soldado*



(Madril, 1859), *La campaña de Marruecos* (Madril, 1860), *Memoria sobre las aguas y baños minero-medicinales sulfurosos de Betelu* (Madril, 1861), *Un viaje a Canarias* (Iruñea, 1863), *Mandil de socorro* (Iruñea, 1865), *Transporte de heridos y enfermos por las vías férreas y navegables* (Madril, 1866), *El derecho de la guerra conforme a la moral* (Iruñea, 1867), *La caridad en la guerra* (Madril, 1868), *El médico militar alemán* (Iruñea, 1872), *La cura pronta y la cartera de socorro* (Madril, 1874), *Estudios sobre táctica de sanidad mili-*

*tar* (Madril, 1880 eta 1887) edota *Disertación sobre los peligros físicos de la embriaguez* (Iruñea, 1884). Osasun arloan eginiko lan erraldoiarengatik Medikuntzaren Errege Akademiako kide egin zuten 1863an

Bestelako gaien inguruko bibliografia ere badu gure medikuak. Historiaren Errege Akademiako kide egin zuten 1867an, eta hortik zuzenean Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordea pasatu zen orduko *intelligentsia* nafarrarekin batera. Euskara Elkargoan ere gogorki lan egin zuen eta *Euskara* aldizkariaren lehenbiziko zuzendaria izan zen. Hor historia eta etnografia gai zuten artikulak izkiriatu zituen, besteak beste, *Crania euskara: Una visión en la niebla: los guerreros euskaldunas eta Datos sobre el arte cristiano en Navarra*. Ez gaitu harritu behar, hortaz, Frantziako Girondako Elkarteko Etnografikoko ohorezko lehendakaria izendatu izana 1875ean.

Lan literarioak ere idatzi zigun Landa medikuak; ez aurreko lanen kalitatearekin, ordea. Probintziako moldiztegi inprimaturik *Los primeros cristianos de Pompeiópolis* izenburuko eleberria karrikaratu zuen Landak 1882an. Inaki Iriarte ikerlariak Landaren liburu horrezaz zertxobait esan digu bere *Tramas de identidad* ikerlan ezinutzizkoan. Lan horretan Zernin doneak Iruñean egin zuen lehenbiziko predikazioaren gorabeherak jaso zituen Landak. Arkeologiak eginiko azken aurkikuntzetan oinarriturik, Landak lehenbiziko mendearen Iruñea ahalegindu zen deskribatzen, halaz guztiz ez zuen eragozpen handirik orduko iruindarrak frontoian pilotan aritzen irudikatzen.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Gure «barbaridade» batzuk

ERDARA (BARBARO): Lehengo batean esaten nuen, nola greziarrek grekera ez beste hizkera guziari «barbaro» deitu zioten; gero, erromatarrek ere berdin *latina* ez beste guziari, hurrena frantsesek edo espainolek «patois, vulgar» eta halakoak, breziera, euskara, katalanera eta beste, mintzaira mordoiloizatutak gutietsiz. Euskaldunak ere izan zuen noizbait bere harrotasun hori, eta «erdara» hitzak erakusten digu ederki. Aurrez aipatu ditudan herri horientzako «barbaro, vulgar, patois» zena, guretzat «erdara» zen; erdipurdiko hizkera arrotz mordoilo guzia, «euskara» ez beste guzia, alegia. Lektutan geratu zaigu behailako harrotasun hura, Txema Larreak «Euskaldungoa erroizturik» liburuan dotore erakutsi digunez. Gure euskara inprentara zenerako, galdua genuen geure buruaganako konfiantza eta harrotasun hura. Etxeparek jadanik «berceac» ditu eredu, eta geroztik auzoen ipurditik datorkiguna euskalduna beti arrastaka, gero eta zabarrago eta jitoago.

EZKAILU (SCAURUS): Horazioen epodoak gaztelaniaz leitzen ari nintzela, honako pasarte honekin egin dut topo hirugarrenaren atzenaldera: «*si, sacando vino del año de la dulce tinaja, prepara manjares no comprados, no serán más de mi gusto las ostras del lago Lucrino o el rodaballo o los escaros*». Ez dakit inork euskaratu duen epodo honenik, baina *escaro* hori leitzean euskarazko *ezkailu* etorri zait gogora. Goizuetan «kixkailu» esaten genien, eta mutikotan bost harropatuak gara Lantxeneko zubipean, eskolapiper eginez. Nere hiztegi kokkorretara jo dut argitasun bila, baina OEHK ez dakar deusen argitasunik. Gaztelaniaz *Escaro*: «pez de los

*arrecifes coralinos, de colores variados y brillantes* (lat. *scaurus* <gr. *skaros*). Ez ote da hemendik sortua gure *ezkailu* hitza? Dena dela, denbora batean, «*Jupiterren muinak*» deitzera, hagitz janari preziatu omen ziren *skaroak*, horregatik Horaziok diona.

KORAPILLO (GORABILLO): Delitu haundiskoa zutenak, jendaurrean areago umilatzen, kalez kale arrastan eramaten zituzten urkamendira. Iruñeko San Zerningo burgoan zen Galea izeneko dorre sonatutik buruz behera bota aurretik, halaxe erabili zuten 1375eko uztailean Araizko Migel Sanz, «alias Goravillo». Erne gaitzizenari. Ertaroan «gorabilla» izeneko soka erabiltzen omen zen luzera haundiko neurriak hartzeko. Zazpi estatu zituen *gorabillak*, eta zazpi oin estatuak. Badi-rudi euskarazko (?) izen zahar haren aztarna dugula *korapilla*. OEHK ordea, honela dio *korapilo* hitzaz: «*la forma con inicial es la primitiva*». Ezetz esanen nuke nik.

ITIÑA (BOÑIGA): Gaztelaniaz «*origen desconocido*». Bai ote? Lehengoan, gorotzaz ari nintzela, *itiña*, *arkiña*, (*ziriña*) eta antzekoak erabili nituen gogoan, baina, askotan bezala, lekuri ezagatik bazter utzi. Nonbaitean gordea «*egin*» aditza sumatzen dut hitz zahar galduxe horien sorreran; bati baino gehiagori (berastegiari bati orain hurrena) «*eginkariko*» esaten aditua bainago *kaka* polit adierazteko; «*hacer de cuerpo*» gaztelaniaz ere. Nere suma xuxen badabil: *boñiga* eta *itiña* hitzek etimologia simetriko berdintsua lukete: (idi + *giña*) eta *erdarazkoak* lat. *bos* < gre. *bóos* batetik sortua, seguraski; gure *arkiña* (*ar(di) + giña*) bezalaxe. Dena dela, filologo presturen batek argituko nauelakoan ixten dut gaurko sudurra.

Ziria

• Motxorrosolo •

Ahantzura

Erraz, errazegi ahantzi egin ditugu. Hamarkada luze bat aski izan da hainbat kontu oroimenetik usatzeko. Azpitik dihoana, antzeman ezina den hori askoren jomuga. Guzti hori ulertzean gakoa haien esku egonen delakoan.



**Georgina Howard** ☉ 'HIZKUNTZ ABENTUREN' SORTZAILEA

# «Kultur trukaketaren bidez ikasleen ikuspuntuak zabaltzen dira»



● ONDIKOL

## soslaia

Georgina Howard duela 35 urte jaiotzen, Birmingham-en (Ingalaterra). Berak dioen bezala, Baztan paradisua da bere sorteri ilunaren aldean.

Georgina frantses hizkuntzan lizentziatua dago, eta nazioarteko marketina ere ikasi du. Sei hizkuntza hitz egiten ditu, eta kazetari lanetan ibilia da. Bost urte eman zituen Kopenhagen, eskimalei klaseak ematen.

Bere lagunak dirudunak direla dio berak, baina berak zituen ametsetan sos guztiak gastatu dituztela. Gerora begira, lasaitasunez, familia osatzea gustatuko litzaioke. «Momentuz oso zorionsua naiz», erran du. «Bi amets nituen, bata liburua argitaratzea eta bestea proiektu hau aurrera ateratzea. Orain lasaitasun eta atseden pixka bat merezi dudala uste dut».

**Abuztuaren 19tik 29ra Azpilkuetako Latxaberria etxean eta irailaren 2tik 12ra Arraiozko Tristantenea etxean egingo dira Hizkuntz abenturak deituriko ingeles ikastaroak. Georgina Howard da egonaldi horien antolatzaile eta bultzatzailea.**

AZPILKUETAKO LATXABERRIA landetxea aukeratu zuen Georgina Howardek hizkuntz jardunaldiak egiteko. Ikasleen artean ingelesak, amerikarrak eta espainiarrak daude eta, halaber, egunero hizkuntzaz aldatzen dute.

### ■ Zer da Language Adventures?

Iaz hasi genuen ikastaro bat da. Bertan bi kultura nahasten ditugu. Hamar egunez gaztelaniaz eta ingelesez hitz egiten duen jendea elkartzen dugu landetxe batean. Horiek egun batean dena ingelesez hitz egiten dute, eta bihar ramunean dena gaztelaniaz. Oporretan zaudelarik hizkuntza ikastaro bat jasoko bazenu bezala da oinarrian. Hogeita hamar urtetik gorakoei zuzenduta dago. Komunikazioa errazteko ateraldi asko egiten ditugu, mendira, inguruko artisauak ezagutzera, eta abar. Hala, harremanak bultzatzen dira, parte-hartzailek ulertzen ez duten guztia galdetzen diote elkarri, eta

horrela komunikazioa errazten da. Arratsaldeetan hizkuntza klase batzuk ematen ditugu, eta gauetan hitzaldiak eta beste mota bateko ekitaldiak ditugu.

### ■ Nola bururatu zitzazun ikastaro hau antolatzea?

Bizi guztia irakasten eman dut, eta ikasgeletan falta zena benetakotasuna zen. Ikasle talde bat ingelesa ikasteko elkartzen denean sortzez ingelesa den bakarra irakaslea da, eta, metodoari dagokionez, dena artifiziala da. Hizkuntzak ikasteko bertako jendearekin egon behar duzu, zure hizkuntza dakitenekin elkartu gabe, bestela errazena guztiek menperatzen duten hizkuntzara aldatzea da. Hori dela eta, bederatzi lagun elkartu ditugu landetxe honetan, herrietatik pixka bat urrun, eguneroko bizitza osoa elkarrekin egin dezaten. Kultur trukaketaren bidez ikasleen ikuspuntuak zabaltzen dira. Esaten den guztia egiazkoa da, hau da, ez dago

libururik etengabe esaldi bat errepikatzeko. Eguneroko bizitzan behar dena esaten dugu. *Give me the cheese* (emaidazu gazta) erraten duzu hori behar duzulako.

### ■ Zergatik aukeratu zenuen Baztan?

Duela lau urte liburu bat idatzi nuen Danimarkan: *Nola lortu zure helburuak*.

ezagutu gabe Azpilkuetaraino iritsi nintzen. Oraindik ez nuen gaztelania menperatzen, baina nolabait moldatu nintzen baserritarrekin, eta denbora gutxian inguruarekin maitemindu nintzen. Arazo txiki bat dut: inguruko mapak ez dira oso zehatzak, eta askotan galdu izan naiz mendian barrena. Espero dut, Baztango jendea ezagutu ahala, bideak erakutsiko dizkigun norbait topatzea, baita bertako kultura, saltokiak, ikusteko lekuak gomendatuko dizkiguna ere.

### ■ Iazko ikastaroa proba bat izan zen. Aurtengoa?

Ez dago aldaketa handirik iazkoarekin alderatuz. Iaz

ra. Ibilbideak antzerakoak dira, baina toki berriak gehitu ditut; Hondarribiko herria, adibidez. Bestalde, Azpilkuetako jende gehiago ezagutzen dut, eta aurten, adibidez, Latxaberria landetxearen jabeak hitzaldi bat eman digu ingurua ezagutzeko. Bere etxeko ukuluetara eraman gaitu, eta ikasleentzat harrigarria izan da. Iaz talde bakarra neukan, aurten bi dira, eta baliteke hurrengorako hiru talde antolatzea, batez ere gaztelania ikasten hasi diren ingelesentzat. Orain arte izan ditudanak bai gaztelania baita ingelesa ere menperatzen zituzten.

### ■ Eta zu nola moldatzen zara euskararekin?

Zaude: 'kaixo', 'egun on', 'bai'... Nola esaten da *good night*?... banekien bada... 'gabon!' (barrezka hasi da). Momentuz hitzak besterik ez dakizkit, baina hona datozen ikasleei inguruko kulturari buruz asko hitz egiten diet. Asko errespetatzen dut bertako nortasuna, eta ikasleek ere maite izaten dute hizkuntz ugaritasun hau. Momentuz ezinezkoa litzateke niretzat ingelesei euskaraz irakastea. Errazagoa da bigarren hizkuntza bezala gaztelania erabiltzea.

«Toki berde baten bila ari nintzen, menditik ibilbideak egitearren, eta Iruñean Baztango landetxeak ikustea gomendatu zidaten. Ezer ezagutu gabe Azpilkuetaraino iritsi nintzen. Denbora gutxian inguruarekin maitemindu nintzen»

Liburua gabe ezin izanen nuen hau guztia antolatu. Egun batez, Madrilera iritsi eta auto bat alokatu nuen. Toki berde baten bila ari nintzen, menditik ibilbideak egitearren. Iruñera iristerakoan Baztango landetxeak ikustea gomendatu zidaten, eta ezer

etorritako gizon eta emakumeak oso pozik itzuli ziren, eta horregatik erabaki dut gauza handirik ez aldatzea. Aurten ez dugu landetxean bazkaltzen, azkenean lan nekeza bihurtu zelako. Oronozera goaz egunero jatera. Gosaria eta afaria etxean izaten di-

→ Rake! Goñi





## Nafar Kronika

Itziar Luri

### Inkestak langabeziaren aurka

**P**opulazio Aktiboaren Inkestaren azkeneko datuen arabera, Nafarroako Foru Erkidegoan langabeziak behera egin du. Eta ez hori bakarrik, inkesta horren arabera, Nafarroan emplegu osora iristear gaude, hau da, langabezia desagertzekotan dago. Urtero datu berdintsuak jasotzen ditugu udaren bukaeran, langabeziak behera egin du... horrela jarraitzekotan desagertu egingo da... gazte gehienak lanean ari dira eta, gainera, itzaropentsu ageri dira beren lan postuen inguruan... Baina kalean ikus daitekeen errealitatea oso bestelakoa da; irailan ekain aldera sortu diren lanpostu asko desagertzen baitira. Igeritokietan dauden zerbitzari, garbitzaile, sorosle eta laguntzaile gehienak gazteak dira. Praktikak egiten edo bekadun gisa ibili diren askok irailan haien lanpostua galdu egiten dute, eta zer esanik ez ohiko edo urte osoko langileek oporrak hartzen dituztenerako kontratatzen diren hainbat eta hainbat gazte eta ez horren gazteak.

Beraz, urtero oso polit eta dotore erakusten dizkiguten inkesta horiek urtero ere bestelako mundu bat erakutsi nahi digute. Fantasiako mundua, non jendeak lan egiteko aukera izateaz gain lanpostuak txukunak, iraunkorrak, eta ongi ordaindutakoak diren.

Aztertutako arloa edozein dela ere, jakin badakigu inkestak ez dutela profil objektiborik eskaintzen: baina guztietan barreagarrienak langabeziaren eta lanpostuen inguruan egindakoak izaten dira, egiten dituztenek ere ez sinesteko modukoak. Dena den, urtero bezala ez diegu kasu handirik egin, eta ni behintzat alde positiboa ikusten saiatu naiz: inkesta hauek egiten ahal izateko lanposturen bat sortzen bada behintzat, baliagarriak direla esan behar dugu.

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Noain:** Larunbatean, 21:30ean, Numidia eta Carlos Piñuela y su Son taldeek kontzertua eskainiko dute herriko plazan.
- **Getaria:** Bihar, Berri Txarrak rock taldeak joko du, 22:00etan.

### BERTSOLARIAK

- **Artikutza:** Astelehenean, 18:00etan, Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsolariak ariko dira.

### KIROLAK

- **Irunberri:** Igandean herri kirolen erakustaldia egingen dute herriko plazan, 13:30ean. Aizkolariak, harrijasotzaileak eta lasto-jasotzaileak izanen dira bertan.

### ZINEMA

- **Barañain:** Gaur, *Angus* filma emanen dute, euskaraz, aintziraren anfiteatro naturalean, 22:00etan.
- **Irañeta:** Bihar, *Angus* filma emanen dute, euskaraz, parkean, 22:00etan.
- **Iruñzun:** Asteazkenean, *Angus* filma pantailaratuko dute foruen plazan, gaueko hamarretan. Euskaraz izango da emanaldia. Euria eginez gero, frontoian izanen da.

### ANTZERKIA

- **Atarrabia:** Gaur, Deabru Beltza taldeak *Ibiltariak* karrika ikuskizuna eskainiko du (hankapaluak, malabarismoak, burdinazko erraldoiak...) Antso VI.a Jakituna plazan, 22:15ean.
- **Jaurrieta:** Igandean, Popi eta Zarratrako pailazoen *Pailazoen soilik* antzezlan eskainiko dute herriko frontoian, 19:00etan.
- **Atarrabia:** Asteartean, Circo

Discolo taldeak *Munduko zirkurik txikiena* antzezlan taularatuko du Martiket igerilekuan, arratsaldeko seietan.

### ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Josetxo Lamyren margolanak daude ikusgai M. Berekoetxea hiribideko lokalean, hila bukatu arte; lanegunetan 18:00etatik 21:00etara, larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

### IKASTAROAK

- **Iruñea:** Nafarroako AEK-k eus-

kara irakasleak prestatzeko ikastaroa antolatu du irailarako. Ikastaroan parte hartzeko deitu 948-220213 telefonora.

- **Barañain:** IKAKo Sahats eskaltegiak irailerako udako ikastaroak antolatu ditu. Ikastaroek lau aste iraungo dute, ordutegi eta urrats guzietan. Izena 948-188325 telefonoan eman behar da, irailaren 1a baino lehen.

### LEHIAKETAK

- **Atarrabia:** Abuztuaren 31n aki

tzen da herriko jaietarako kartel lehiaketako lanak aurkezteko epea. Kartelak, behar bezala babesburik, Kultur Etxean aurkeztu behar dira (Kale Nagusia, 67) 10:00etatik 14:00etara. Kartelaren gaia, estiloa eta teknika libre da. Kartelak 70 cm.ko altuera eta 50 cm.ko zabalera izan behar du, eta honako testua idatzita: «Villava-Atarrabia. Fiestas Patronales 2000-Herriko Jaiak 2000». Herriko armariak ere azaldu behar du kartelean.

• JOXE LACALLE



### Maritxu, faborez

Hitzez hitz: «Moztu nauen putasemeari: Erre nahi baduzu, landa ezazu zeure landarea. Maritxu Cañamera». Iruñea Nafarroako ipar-mendebaldeko kalamu sail batean hartua da. Kontsumitzen diren legeaz kanpoko droga gehienak adulteraturik daudeneko Andre Mariaren urte honetan, badirudi Cannabis sativa kalamutik ateriko marihuana dela droga natural bakarra. Hori dela eta, askok euren lursailak landatzeari ekin diote. Eta bertze askok naturista horien lepotik kontsumitzeari ekin diote. Horrelakoetan, sailen jabe batzuek elkartasuna bezalako kontzeptuak erabiltzen dituzte isileko biltzaileen konbentzitzeko. Bertze batzuek, ordea, modu zuzenagoan erraten dute erran beharrekoa. Maritxuren kartela zuzena da. Eraginorra? Auskalo!